

Aurrera, batera!

Getxo

Mira al futuro

ILUSIOA SORRARAZTEN DIGUTEN KONPROMISOAK:

Sozialki kohesionatua eta belaunaldien artekoa; gizarte-erronka bikoitzari heltzen dion belaunaldi arteko zentro aitzindariaren bidez: bizitza-luzera eta gazteen emantzipazioa. Adin desberdinetako pertsonak biziko diren zentroa, adinekoentzako bizikidetza-unitateetan antolatutako 100 plaza eta gazteentzako alokairuko 40 apartamentu.

Aukera-sortzailea; Martiturri enpresa-parkea bultzatuz, lanpostu erakargarriak, kalitate onekoak eta Getxon talentu erakargarria sortuko duten balio erantsi handiko enpresak ezartzeko. Horrez gain, turismo iraunkorreko industria errespetuzkoa eta kalitatezkoa landuz, Kirol Portuak gizarte-, kirol- eta aisialdi-espazio gisa duen balioa sendotuz eta instalazioak berri-tuz.

Etxebizitzen aldeko apustu garbia; gure gazteei Getxon bizitzeko eta bizi-proiektua garatzeko aukera aintzat hartzea erraztuko dien Etxebizitza Plana izan, hala nahi izanez gero eta, horren bidez, belaunaldi guztien premiei erantzungo diena: alokatzeko etxebizitza publikoak, etxebizitza libreak, lankidetzakoak...

Mugikortasun iraunkorreko erreferentea; berotegi-efektuko gasen emisioak murriztuz, Mesedeetako aparkalekuaren plaza kopurua handitu eta prezioak berrikustea, hiri-autobuseko proiektu pilotua bultzatuz, bidegorri berriak eginez eta hiriguneetako espazioak oinezkoentzat ere erdizka prestatuz.

Ingurune naturalarekiko begirune eta errespetua; ingurune balioak txertatuz, hirigunearekin bateragarri bihurtuz eta baliabide eskuragarriak modu ego-kiagoan aprobetxatuko dituen udalerrri-eredurantz

abiatuz. Azkorriko birika naturala zainduz eta ekonomia zirkularrarekin konpromisoa hartuz: murriztea, birziklatzea eta berrerabiltzea Larrañazubiko Biolehortze Plantaren bidez.

Kirolaren hiria; Fadura Kirol Parke Berria, atletismoko, errugbiko eta txirrindularitzako tribuna berriarekin, eta Garagardotegia, kirol- eta gizarte-ekipamendu multifuntzional gisa. Klubekin eta kirol-elkarteekin egiten dugun lana sendotuko dugu, Getxoko kirol-instalazioak eta -proposamenak garatuz eta eguneratuz.

Kulturaren eta sormen-industrien abangoardia; Getxo Sormen Hub, Muxikebarri eta RKE. Berrikuntza eta tradizioa izango dira Andres Isasiren antzoki berriaren ardatzak eta, gainera, jarduera auzoetara hurbilduko dugu, adibidez, Zubilleta-Aldapa inguruan kultur gunek bat egokituz.

Kaleko merkataritza-plaza; udalerriko merkataritza- eta enpresa-eredu ordenatu, erakargarri, jasangarri eta irisgarria garatuz, enplegua sortuz eta, horrela, kalea bizi-kalitatez eta segurtasunez hornituz. Merkataritza, zerbitzu profesionalak eta ostalaritza ez ezik hurbileko produktuak ere helburu nabarmenak dira.

Askotarikoa eta tradiziozkoa; Getxo berri hau osatzen duten kulturen arteko elkarbizitza landuz. Tradizioa eta aniztasuna eskutik helduta doaz, Getxon bizi garen guztioi kultura- eta gizarte-aberastasuna ekarriz.

Udal hurbil eta eskuragarria; administrazio hurbilagoa, dinamikoagoa eta eraginkorragoa, herritarren arreta arinduz eta izapide telematikoak erraztuz: leihatila bakarra, modernizazioa, eguneratzea eta oinarritzko zerbitzuen bikaintasuna.